



# aballarri

EGAPE IKASTOLAKO ALDIZKARIA



## IKASTURTE EMANKORRA



**HAUR HEZKUNTZA:**  
Familiak ikastolan



**LEHEN HEZKUNTZA:**  
Elkarbizitza irteerak



**DBH:**  
Berdinengandik ikasten



**42 • 2018**  
**UZTAILA**



## IRAKASTEN DUEN ESKOLA

Egape BHIk garbi du ikasten eta irakasten duen ikastetxea dela. Horrela, beti prest egon da bertan egiten den lana beste ikastetxeekin partekatzeko. Filosofia horretan oinarrituz, azken ikasturteetan eskolaz kanpoko hainbat forotan agertu gara.

Hezkuntza Sailak antolatutako "Partekatuz Ikasi" formazioan parte hartu dugu formazio emaile bezala:

- 2014/2015 ikasturtean, Tutoretza prozesua Bengoetxe-Galdakao Institutoan.
- 2015/2016 ikasturtean, "Ikastetxea kudeatzeko estrategiak" eta "Irakasle Koadernoa" prozesuak Ondarroako Zaldupe HLHI eta Bergarako HHI.
- 2016/2017 eta 2017/2018 ikasturteetan berriz, Juan Villar irakasleak, "Metodología berriak Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan" Erreenteriako Koldo Mitxelena, Abadiñoko Institutua, Ermuako Institutua, Tolosako Orixe BHI, Lezo BHI, Arrasate BHI, San Adrian BHI eta Markina BHI.

Bestalde, "Teoriatik praktikara" Kalitate Hezkuntzan sarean antolatutako formazio saioetan ere parte hartu izan dugu formazio emaile bezala:

- 2015/16 eta 2016/17 ikasturtean "Konpetenzien ikasketa Eki proiektuaren bidez, eta metodologia berrien erabilera ikasgelan" ikastaroan ikastetxe ezberdinak gure praktika partekatu genuen Egape BHIn.
- 2015/16 eta 2016/17 ikasturtean, "Metodología berriak ikasgelan" formazioa eman zen Egape BHIn.
- 2016/17 ikasturtean, "IKKI proiektuaren inguruan, ikastetxeen koordinazio taldearen funtzio eta betebeharak" Arrasate institutuan.
- 2016/2017 ikasturtean, HEIZE-k (zuzendariekin elkarrekin) antolatutako "Eskola Digitala III Jardunaldiak"-etan parte hartu genuen, Sare sozialen erabilera gelan gaia jorratzu.

Beraz, ikastetxearen prestatasuna edonorekin gure esperientziak partekatzeko eta gure ezaguerak beste ikastetxeen eta profesionalei zabaltzeko agerian geratzen da. Orain arte bezala, etorkizunera begira ere gure ikastetxea bide honetatik jarraitzen saiatuko da.

## UNA ESCUELA CON MUCHO QUE ENSEÑAR

Dentro de la personalidad y la filosofía de centro del instituto de Secundaria Egape está grabada a fuego la idea de tribu: un grupo de personas que trabaja con y para todos de un modo solidario y responsable. Debido a ello en los últimos años el centro ha participado como tutor en diversos foros colaborativos, entre ellos:

\*Patekatuz ikasi -2015-2018- (Proyecto entre centros gestionado por el Gobierno Vasco) compartiendo procesos de tutorización, estrategias de gestión de centro o propiciando la difusión de metodologías activas de enseñanza-aprendizaje.

\*Teoriatik praktikara -2015-2017- (dentro de la red de Calidad Educativa) divulgando el trabajo activo por competencias y las nuevas tendencias pedagógicas, el proyecto IKKI (Aprender colaborando/colaborar para aprender) o dando a conocer la importancia del aprendizaje de un uso adecuado de las redes sociales.

Todo ello desde una idea de una escuela pública, desatomizada, abierta al mundo, que lucha por una cultura de grupo y que cree en la riqueza del aprendizaje colaborativo, dispuesta a compartir en el futuro experiencias y conocimientos con otros centros y profesionales.





## LANEAN GOGOTSU!!! ERRONKA BERRIEI AURRE EGITEKO PREST!

Jada urtebete pasa zaigu HH-LH eta DBHko zuzendaritza talde berriak lanean hasi ginenetik. Ikasturteari hasiera, Euskadiko Eskola kontseiluak eta Urnietako Udalak proposatutako "Hezkuntza hobetzea" proiektuarekin eman genion. Hiru hilabetez ikasle, irakasle eta familiek hezkuntzaren inguruko hausnarketa egin genuen eta bukaera Legebiltzarreko bilkuran eman genion gure proposamenak aurkeztuz.

Era berean, ikasturte honetan, bi zuzendariek datozen lau urtetarako baliagariak izango diren helburuak bildu dituzte "Zuzendaritza proiektuetan" eta horiek onartuak izan dira Hezkuntza Iuskaritzaren eta OOGaren aldetik.

Proiektuek dirauten bitartean, erronka garrantzitsu bat helduko diogu, hala nola, "Egape 2-16 proiektua" sendotu eta indartzea. Horretarako, etapa guztien arteko elkarlana eta koordinazioa bideratuko dugu, komunikazioa estrategia eta plana aurrera eramango dugu eta Heziberri 2020k eskatzen duenarekin bat egingo dugu metodologia aktiboak bultzatzuz eta konpetentziatan oinarritutako hezkuntza garatuz.

*Ha pasado un año ya desde que empezamos a trabajar los nuevos equipos directivos en educación infantil, primaria y secundaria. Con el comienzo del curso afrontamos el proyecto "Mejorando la educación" junto con el Ayuntamiento de Urnieta y el Consejo Escolar de Euskadi; en él, y durante un período ininterrumpido de 3 meses, alumnado, profesorado y madres y padres del centro nos reunimos para reflexionar sobre educación, teniendo como broche de oro la posibilidad de presentar nuestras propuestas en Parlamento.*

*Por otro lado, durante el curso actual, los dos directores han sentado las bases de lo que puede ser nuestra escuela en los próximos años en "El proyecto de dirección", al que han dado el visto bueno tanto el Consejo escolar como la Inspección educativa.*

*Mientras tanto, nos proponemos, a modo de reto, fortalecer en la medida de lo posible el proyecto "Egape 2-16". Para ello, facilitaremos la coordinación y el trabajo común entre todas las etapas, desarrollando un plan estratégico de comunicación interna, y uniéndonos al uso y potenciación de las metodologías activas y el desarrollo del aprendizaje por competencias, tal y como nos propone la nueva ley "Heziberri 2020".*



## JASANGARITASUNA / SOSTENIBILIDAD

"Eskola Jasangarria" agiriak Eskolako Agenda 21 programan nabarmentzeko esperientziak dituzten eskolak goraipatu nahi du. Ziurtagiriarekin, eskoletan egiten den lana, prozedurak, esperientziak eta, azken finean, eskolaren hezkuntza, partaidetza eta jasangarritasun kalitatea errekonozitu nahi da. 2013-2014 ikasturtean lortu genuen ziurtagiria eta aurten auditoreta pasa eta berretsi dugu. Ekainaren 5ean, Busturiako Madariaga Torrearen egoitzan ospatu den ekitaldian Iñigo Urkullu lehendakariarenengandik, Egape BHIko zuzendariak, Amaia Amutxastegik eta Eskolako Agenda 21 programaren koordinatzaileak, Xabier Basaurik, eskuratu dugu diploma.

Hauek dira, beste batzuen artean, ziurtagiria jasotzeko ikastetxeak egin dituen lanak: Agenda 21 programa urtero bideratu, eskola-komunitateko partaideen proposamenak jaso, ikastetxeko proiektuen arteko lotura eta koherenzia bermatu, metodologia aktiboak bideratu, ingurumenaren aldeko hezkuntza jarduerak sustatu...

Ikastola zeharo asebeteta agertzen da egiten ari den lanak errekonozimendua izan duelako eta hemendik aurrera ere jasangarritasunerantz lanean jarraitzeko konpromezua hartzen dugu.

*El certificado "Escuela Sostenible" pretende poner en relieve las experiencias relacionadas con el programa escolar Agenda 21. Con ello se quiere reconocer la calidad del trabajo realizado en las escuelas en torno al concepto de "sostenibilidad", en un amplio sentido.*

*En el curso 2013-14 ya conseguimos este certificado y ahora, durante este curso, tras pasar una nueva auditoría, nos ha sido de nuevo revalidado. Por ese motivo, el pasado 5 de junio, la directora de EGAPE BHI, Amaia Amutxastegi, y nuestro coordinador del proyecto Agenda 21, Xabier Basauri, recogieron el diploma acreditativo de manos del lehendakari Iñigo Urkullu. La ceremonia tuvo lugar en la Torre Madariaga de Busturia.*

*En concreto, estas son algunas de las tareas que nos han hecho merecer este certificado: desarrollar y actualizar cada año el proyecto Agenda 21, garantizar la conexión y la coherencia de todos los proyectos del Centro, potenciar las metodologías activas, críticas y responsables, promover las actividades educativas que defiendan el medio ambiente...*

*Para nosotros este reconocimiento es una grata noticia y, además, nos anima aún más a seguir trabajando y a mantener nuestro compromiso con la sostenibilidad.*





## ADIN DESBERDINEN ARTEKO TOPAKETAK

HNP lan taldeak bultzatuta ikasleen arteko ekimen hau gauzatu dugu. Horrela, ikasturtean zehar, adin desberdinetako ikasleak zenbait jarduera partekatzeko elkartu dira: plastika lanak, ipuinak irakurri eta entzuteko, jolasak egiteko... Esperientzi hau osoa aberasgarria izan da eta ildo honetatik jarraitzeko asmoa dugu.

Durante el curso alumnas y alumnos de distintas edades han compartido juegos, han leído y escuchado cuentos, han realizado trabajos de plástica... Esta enriquecedora experiencia es fruto de una iniciativa del grupo de normalización lingüística (HN).



## FAMILIAK IKASTOLAN

Gure familien presentzia ikastolako eguneroko jardueretan gero eta handiago da. Familiak eta ikastola bat datozen hezitzale lanean. La presencia de las familias en las actividades, no solo lúdicas, de la ikastola es cada vez mayor. La educación es una labor que nos compete a todos.





## HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

42 • 2018  
UZTAILA



### MUSIKA KALEAN

Musika gelatik plazara. Gure ikasleek Anttonek, musika irakasleak, lagunduta herriko zenbait plazetan musikarekin lotutako emanaldiak eskaini dizkiete famili eta bertaratutako herritarrei.

Música en la calle. Nuestras familias y los vecinos, en general, han podido disfrutar de esta gratificante iniciativa de Antton Jauregi y nuestras alumnas y alumnos.





## ELKARBITZTA IRTEERAK

Beste leku batzuk, beste pertsona batzuk eta gu hobeto ezagutzeko antolatzen ditugu elkarbitzta irteerak.

Astiz, Arotz-enea, Zarautz, Beire, Ollo, Arantza eta Zuhatza izan aurtengo helmugak; baldintza bakarra ONDO PASATZEA.

El objetivo de las salidas de convivencia, además de conocer otros lugares, otras personas, de conocernos mejor entre nosotros es PASARLO BIEN. Para ello hemos viajado y conocido diferentes rincones y lugares de Euskal herria.





## BERTSOTAN HERNANI-TOLOSAN

Ikastolak betidanik izan du ezinbesteko lotura euskara, euskal kultura eta bertsolaritzarekin. Ikasturte honetan gure ordezkariek, arrakasta handiz, parte hartu dute Hernani eta Tolosan egindako saioetan.

Hernani y Tolosa han sido testigos de las actuaciones de nuestras y nuestros bertsolaris.



## EGUNeko ZENTRORA BISITA

LHko 3. eta 4. mailetako ikasleek, urtero, Urnietaiko Eguneko Zentrora egiten duten bisitaren helburua bertan dauden adineko aiton-amonekin jolastuz, solasaldiak mantenduz... eta horrela goiza partekatzeaz gain, besteekiko sentsibilizazio lana sustatzea da.





## BERDINENGANDIK IKASTEN

Egape Ikastolako Hezkuntza proiektuaren ardatz nagusia gure ikasleen heziketa integrala bermatzea da. Horren haritik, ikaslea da ikasketen protagonista eta ikasleen partaidetza bultzatzen dugu metodologia aktiboak praktikan jarriz. Era berean, ikasketa zerbitzua sustatu nahi izaten dugu ikasitakoari balioa eman nahian.

Ildo honetatik jarraituz, DBH 4. Mailako ikasleak eskola orduan prestatu dituzte haien ezagutzak LH 6. Mailako ikasleekin partekatzeko. Ikerketa nagusiak gaztetxoen irakasle bilakatu ditugu informatikako klaseak ematen.

Modu honetara, gaztetxoak berdinengandik ikasiz errazago bereganatzen dituzte edukiak eta helduenak ere, bizitzarako garrantzitsuak diren hainbat konpetentzia lantzen dituzte.

Era berean, plastikako klaseetan HH4 urteko haurtxoentzat ekoiztu dituzte ipuinak ingelessez. Ikerketa helduenak sortu, josi eta osatu dituzte ipuinak ilusio handiz eta HHra joan dira ipuin kontalari bihurtuz.

## APRENDIENDO ENTRE IGUALES

*Nuestro proyecto educativo trata de garantizar la educación integral de nuestros alumnos/as. El alumno/a es el protagonista del proceso de aprendizaje y por ello ponemos en práctica las metodologías activas, entre ellas, el aprendizaje-servicio dando así sentido a lo aprendido.*

*De este modo los alumnos/as de 4º de ESO han impartido clases de informática en 6º de Primaria y han asumido el rol de cuenta-cuentos en inglés para los*





## IKASBIDAIA 2018

Ikastolako ibilbide luzeari amaiera goxoa emateko asmoz, DBH 4. mailako ikasleak aurten ere ikasbidaia zoragarria prestatu dute. Aste bete pasa dute Alsazia (Frantzia) eta Ohian Beltzean (Alemania) hango leku esanguratsuenak bisitatzen. Talde handia izan da aurtengoa, 44 ikasle eta 4 irakasle ibili dira elkarrekin eta nahiz eta nekatuak iritsi, denak oso pozik etorri dira bueltan. Esperientzia ederra izan da guztientzat ikasbidaiaaren helburuak bete-betean lortu baitira, hau da, leku berrien ezagutza, alde batetik, eta elkarbizitza ikasketa, bestetik.

*El alumnado de 4º de ESO ha estado en Alsacia (Francia) y La Selva Negra (Alemania) durante una semana en el viaje de fin de estudios. La experiencia ha sido valorada positivamente tanto por el profesorado como por el alumnado. Además de conocer nuevos lugares, han aprendido a convivir fuera del ámbito escolar.*



## ROBOTIKA ETA 3D PROIEKTUA

Azken hiru ikasturteetan Hezkuntza-Robotika poiektua garatu da DBH-ko Teknologia arloan.

Programazioa lantzeak logika garatzen du, arazoak konpontzen eta edukiak ulertzen laguntzen du, norberaren ideiak garatzeko baliagarria da eta baita talde lanerako ere oso interesgarria bilakatzen da.

Ikasleak teknologia berriak erabiltzen ohituak daude: video-jokuak, smartphone motako telefonoak, haien arteko komunikazioak aplikazioak, eta abar. Gaur egun, Maker mugimendua gero eta gehiago bultzatzen da gizartean, hau da, "norberak fabrika dezala behar duena" eta eremu honetan kokatzen dugu 3D impresioa. Gure ikasleak, IKTak erabiliz, gai izango dira fabrikazio pausu guztiak aurrera eramateko: diseinua, ekoizpena eta kontrola. Proiektuak ikasle kontsumitzale hutsak izan beharrean, sortzaile izatera pasatzen lagunduko die.

Proiektu bidezko metodologiarekin ikaslea protagonista bihurtzen da eta bere ikasketetan parte hartze aktiboa izatera bideratzen du; gainera, egiaztatu da ikasleek eskutan izango dituzten baliabide hauek motibazioa eta interesa sortzen dutela beraingan.

Hori dela eta, ikastetxeak erronka honekin jarraitu nahi du, gure ikasleengan robotikako oinarrizko heziketa bermatuz.

Egape BHI lleva tres años desarrollando el proyecto de formación en Robótica y 3D en la asignatura de tecnología.

*Nuestros alumnos/as están acostumbrados a utilizar las nuevas tecnologías: videojuegos, smartphones... Por otro lado, el movimiento Maker impulsa el DIY (Do It Yourself) o "hazlo tú mismo" y en este ámbito situamos la impresión 3D. Este proyecto ayudará a nuestros alumnos/as a pasar de ser meros consumidores a ser creadores y a ser capaces de diseñar, fabricar y controlar el proyecto. Además desarrolla la lógica, ayuda a resolver problemas y entender los conceptos trabajados.*

*Por otra parte, la metodología basada en proyectos convierte al alumno/a en protagonista de su aprendizaje, y esto hace que tenga mayor interés y motivación.*



## ABALLARRI GURASOEN ELKARTEA

Orain dela bi urte AMPAkko kide izatelo erronka onartu genuen. Haurren heziketa hezkuntza komunitate osoarena da eta familiok ardura handia dugu bereziki horretan, denon artean etorkizuna eraikitzen ari gara. Beraz, AMPAkko kide izanik, zuzendaritzarekin bat, haurren heziketan parte hartzeko are eta gertuago sentituko ginelakoan, ilusio handiz ekin genion ibilbide berri honi.

Bi urte hauetan zegoena hobetu eta sortu diren ideia berriei forma ematen saiatu gara taldeko kide guztiak. Zenbait mendi irteera, baratzetara irteera, neguko azoka, zaintza zerbitzua hobetzea, eskolaz kanpoko jarduera berriak eskaintza, ikastolari proiektu berritzaileen eskaria egitea eta beste hainbat ekintzetan gogoz lan egin dugu.

Aballarrik kudeatu behar dituen jarduerak orain arte bolondres moduan sartutako familien artean kudeatu izan dira. Honek azken urteetan familia gutxien artean ardura hartzea ekarri du. Hau guztia aldatu nahi izan dugu eta hemendik aurrera Aballarriko batzordea 8 pertsonez osatua egongo da eta urtero zozketa bidez 4 familia berri sartuko dira lan hau kudeatzera. Bi urtetarako lana da, lehenengo urtean ikasteko eta hurrengoan sartu diren familia berriei erakusteko hain zuzen.

Bi urte hauetan ez digu denbora eman buruan ditugun proiektu eta ideia guztiak gauzatzeko. Hainbat martxan uzteko ideia dugu eta familia guztien artean forma emateko gai izango garela ziur gaude!

**HELBURU NAGUSIA:** Aballarri GE familiengana gerturatu nahi dugu.

Aballarriren atzean zenbait bolondres familia daudela sentitu behar dugu, kritika bat egitean gure buruari ari garela sentitu behar dugu, bertan dagoen lana eta esfortzua onartu eta eskertzen ikasi behar dugu. Aballarri GE Egape ikastolako haur guztien familiak osatzen dugu eta hortaz bolondres espiritua eta talde lana gailendu behar dira.

Honi guztiari forma emateko bi bide jorratuko ditugu hurrengo kurtsotik aurrera: gelako familia ordezkarria eta azpi-batzordeak. Zenbait jarduera martxan jarri eta zuzenean gela bateko edo kurtso bateko familiekin kontaktu zuzena izateko primerako bidea da familia ordezkarriarena. Bestetik, batzordean 8 familia soilik egongo dira eta proiektuak aurrera ateratzeko eta buru behar diren ekintzak kudeatzeko oso justu gelditzen da. Hortaz, familia bolondres desberdinak beharko ditugu, sortuko ditugun azpi-batzordeetarako: extraeskolarretako batzordea, proiektu berritzaileen batzordea, jangela batzordea, IKT batzordea, ekintzen batzordea... batzorde hauen helburua ondoren juntan adostuko diren ideia eta proiekturei forma ematea izango da.

Zuen guztion laguntza izango dugelakoan agurtzen gara





## BALORETAN HEZTEN / EDUCANDO EN VALORES

Egape Ikastolan ikasturtean zehar hainbat egun berezi aldarrikatu ditugu.

Hezkidetza programaren barruan eta gure ikastolako tutoretza planetan txertatuta ditugun egun seinalatuak DBHko ikasleekin jarduera berezien bidez landu ditugu. Egun hauek azaroaren 25a, "Genero indarkeriaren kontrako eguna"; martxoaren 8a, "Emakumeen nazioarteko eguna"; eta maiatzaren 17a, "LGTBI fobiaren kontrako egunak" aldarrikatu ditugu.

*Dentro del programa de coeducación trabajamos los valores de igualdad y respeto. Así se conmemoran cierto días señalados como son, el 25 de noviembre "Día contra la violencia de género"; el 8 de marzo "Día internacional de la mujer" y el 17 de mayo "Día contra LGTBI fobia"*

### GENERO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA

Tutoretza saioetan egun horren inguruko hausnarketa egin zen eta puntu morea ikurtzat hartuta taldeka argazkiak atera genituen.

Reflexión y presencia del punto morado.

### EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

#### MARTXOAK 8, EGUN SEINALATUA EGAPE IKASTOLAN

Berdintasunaren aldeko aldarrikapenaren izenean, Egape Ikastolako ikasle, irakasle zein guraso emakumeak hartu genuen protagonismoa eta herrian aldarrikapen eta festa giroa sortu genuen.

Las mujeres de Egape fueron protagonistas en un día reivindicativo.

### LGTBI FOBIAREN KONTRAKO EGUNAK

Maiatzaren 17a, LGTB fobiaren aurkako eguna izanik, EGAPE BHI-ko ikasleek, hausnarketak egin ondoren, horma-irudi polit eta bizi hau osatu genuen ikastolako jolastokian.

Mural reivindicativo contra la LGTBI fobia.



## EGAPE IKASTOLAKO IKASLEAK IRABAZLE ANTIA LEHIAKETAN.

LH 4. mailako Maddi Arrieta, DBH 2. mailako Arixen Unanue eta DBH 4. mailako María Muro eta Ainara Isasti izan dira aurten sarituak. Zorionak!

Maddi Arrieta (4º Primaria), Arixen Unanue (2º ESO) y María Muro y Ainara Isasti (4º ESO) ganadoras del concurso literario "Antia".



## IKASLE OHIAK

Egape Ikastolan ikasle ohiak presentzia nabaria izan dugu ikasturtean zehar. Hainbat ikasle ohi ibili dira LHko geletan zenbait argibide eta laguntza ematen.

Ex-alumnas de Egape han realizado diferentes actividades en Primaria.

Ane Callejonek elikadurari buruz argibide interesgarriak eman zituen LHko 5. mailan. *Nutrición por Ane Callejón*.

Maialen Kortajarenak eta Ane Arregik "Egape-Txo" ikasleen aldizkarirako elkarriketak eskaini zituzten. *Entrevistas a Maialen Kortajarena y Ane Arregi para la revista "Egape-Txo"*

Bestalde, DBHn ikasketak amaitzeko behar dituzten praktikak egiten ibili zaizkigu Ane Arregi, Maider Reveriego eta Nerea Berrotaran eta oso ongi moldatu dira klaseak ematen. *Ane Arregi, Maider Reveriego y Nerea Berrotaran han realizado sus prácticas en el centro de Secundaria.*



# 2017-2018 IKASTURTEARI ATZERA BEGIRA

